

## Luken Unanue andoaindarra, pala-txapeldun

Pala motzeko munduko txapela irabazi zuen 1966an, Montevideon (Uruguai) jokatu zen pilota txapelketan / 8-9



**Laster irekiko ditu bere atea Ilgora espazioak. Emakumeen gorputza, erdigunean** / 4-5



**Lehen bi postuak eskuratu dituzte Andoaingo eskolako neskek kadete mailako lasterketetan** / 11

## Igoerak ez du goia jo oraindik

Josean Aisa Aranaztegiko gasolindegiko arduradunari elkarrizketa / 2-3



Animatu eta gerturatu aurrekontu irekien parte-hartze prozesuko karpara

### MARTXOAREN 18AN:

10:00etatik 14:30era Etxeberri plazan eta 17:00etatik 20:00etara Guria tabernaren inguruan.

### MARTXOAREN 19AN:

10:00etatik 14:30era San Joan plazan.





"Gurea Gipuzkoako bost merkeen artean dago, eta bezeroak irabazten ari gara", dio Josean Aisak. AIURRI

# "2,20 eurotan jo dezake goia erregai-litroak, baina igoera 15 egun barru eten daiteke"

**JOSEAN AISA** ARANAZTEGI INDUSTRIALDEKO GASOLINDEGIKO ENKARGATUA

Astelehen goiza Andoingo gasolindegian. Erregai erosi duten bi bezero Joseanekin aritu dira solasean luze, erregaiaren prezioaz mintzo, noski

**Andoni Urbistondo** URNIETA

Bezeroei entzutea tokatu zaie, eta gaizki pasatzen dute tarteka, animoak eman eta eman. Aranztegi industrialdeko gasolin-

degian egiten du lan Josean Aisa zarauztarrak, Josune emaztearekin. Erregai eta elikagai saltaile dira, baina baita bezeroen ezinaren lekuko zuzen ere. Erre-

gaien igoerak jendearen poltsikoa hustu eta mingaina askatu baitu. Jende asko muga-mugan dagoela dio Joseanek, eta egorak ezin duela luze jo: "Jotzen

badu dena geratuko da, eta egora kudeatzen dutenek ez dute hori nahi".

**Erregai bi eurora iristear da litroko, zein bilakaera izan du, noiz hasi zen igotzen, Josean?**

Erregai igotzen Ukrainako gerra baino lehenago hasi zen, baina inbasio horrek garestitza biderkatu du. Egunez egun goraka joan da, egunen batean

zortzi zentimo ere igo da. Jendea bere onetik ateratzen hasi zen, urduri jartzen, igotzen hasi zenean. Azken egunetan sumatu dugu jendea erregai merkeen eskaintzen duten gasolindegia bilatzen hasi dela. Informazio hori sarean dago, alderaketa egiten da, eta ohiko gasolindegira ez, merkeen dagoenera joaten da bezeroa.

**Zuek tartean al zaudete?**

Bai. Gurea Gipuzkoako bost merkeen artean dago, eta bezeroak irabazten ari gara.

**Zergatik?**

Beno, gure nagusiak direnek (Arakil Oil), euren irabazietatik puska bat kentzea erabaki dutelako. Bi gazte nafar dira. Beraiak negozioa bereganatu baino lehenago hemen lanean ginen guztiak jarraitzen dugu, denak langile finko, eta telefonoz bada ere harreman emankorra dugu egunerok. Pentsatu dute prezio baxuagoak jarrita bezeroak irabaz ditzaketela, eta erabaki ona hartu dutelakoan nago.

**Zer dio jendeak, erregaiaren salneurriari begiratzen dionean?**

Eguneroko bezeroa beldurtu egiten da, baina egoera askoz la-

rriagoa da profesionalarentzat, bere soldata erregaiaren salneurrian baitago. Furgoneta edo kamioia eramaten duten autonomoentzako zigor ikaragarria da, kilometro asko egiten dituztelako egunero. Profesionala ez denarentzat, tira, depositu bakoitza 30-40 euro izango dira hilean. Dirua da, baina onartzeko modukoa, asko jota bi depositu direlako hilean. Profesional batentzat 100 eurokoa da alde eguneko, kamioien kasuan, hilean 3.000 bat euro. Banatzaileentzat ere zigorra latza da. Horiek bi egunez behin betetzen dute depositua, edo egunero batzuk.

**Eta zuek nola sentitzen zarete, bezeroei erregai litroko salneurria ematen diezuenean?**

Beldurra ematen du. Lehen, depositua bete, eta ordaindu beharrekoa esaten genienean, 40 euro botatzen genien, 60 kotxea handia bazen. Orain 80 edo 100 euro dira, kotxea handia edo txikia izan. Beldur pixka bat ematen du bezeroari ordaindu behar duen kopurua esatea, ze erregaiaren igoerari argindarra, gasa eta beste gehitu behar zaizkio.

### Testigantza gordinak entzungo zenituzten, ezta?

Sekulakoak, lau bezerotik hiruk gaia ateratzen dutelako. Ez dago besterik. Bezeroa animatzen saiatzen gara, baina azkenerako geuk ere jota bukatzen dugu, panorama gordina delako oso. Komentario gehienak ezkorrak dira, jende asko hilabete bukaerara iritsi ezinik. Muga-mugan daude bezero asko. Aintzat hartu erregaiaren igoerak dendako beste produktu guztien gorakada ere ekarri duela. Dena gora doa, baina journalak bere horretan mantentzen dira.

### Bereziki gogoratzen duzun lekutzaren bat?

Autonomo askok, lana egiteak, kamioia edo furgoneta martxan jartzeak ez duela merezi diotenak. Gero, erregai bukatuko dela pentsatzen dutela askok. Badago psikosi hori, eta lehen depositua

## "EGOERA KRITIKOA IZAN BAINO LEHEN HARTUKO DUTE IGOERA ETETEKO ERABAKIA"

betetzen ez zuten askok bete egiten dute orain, erregai bukatu egingo dela sinetsita daudelako. Badaezpada, bete. Azken bi astetan erregai gehiago saltzen ari gara horregatik. Gauza berbera gertatzen ari da ekilore olioarekin. Bukatu egingo dela pentsatzen dute askok, eta saldu eta saldu ari gara dendan.

### Gorakada noiz etengo den ere galdetuko dizute, noski.

Jakina, baina gu langile soilak gara, ziurtasunik ez dugu. Estutzen segituko dutela esango nuke, baina tope bat ere jarri beharko dute, estutzearen poderioz dena gelditu egingo delako, jendea sosik gabe geratu, eta aberatsak euren mozkinak handitu ezinik. Estutuko dute botere ekonomikoek, baina bat-batean joera aldatu egingo da, oreka hautsi egingo delako bestela. Egoera honek jatorri ekonomikoa dauka, tartean gerra bat egonda ere.

### Askok esango zizueten estatua tartean dagoela, zerga bidez sos asko jasotzen duelako erregaien bitartez.

Litro bakoitzeko %50 eramaten du estatuak, hain zuzen ere. Orain bi urte irabazten zuenaren

bikoitza irabazten du estatuak erregai salmentarekin. Ezin al du %50eko zerga hori murriztu, egoera kritiko honetan? Estatuak bere zerga %25era jaitsiko balu, erregaiaren prezioa 50 zentimo jaitsiko litzateke litroko. Erabaki horrek arnas handia eman go lieke langile askori, eta estatuak lehen jasotzen zuen diru kopuru bera jasoko luke, baina... **Zenbat erregai litro sal daitezke Espainian egunero?**

Astakeri bat. Kalkulu ez zehatza egin genezake. Espainian 30 milioi auto baldin badaude, eta bakoitzak eguneko 50 kilometro egiten baditu, hiru bat litro, 90 milioi erregai litro dira. Egia da auto askok ez dutela 3 litro behar eguneko, baina horren gainetik ere asko ibiliko dira. 90 milioi erregai litro denera, eguneko, eta batez beste bi eurotan litroa laster. 180 milioi euro dira, horien erdiak, 90 milioi euro, estatuarentzat, zerga bitartez. Egunero-egunero. **Zer nolako panorama aurreikusten duzue aste pare bat barru, Aste Santurako edo?**

Erregaiaren igoera eten egingo da hurrengo astetan, gora eta gora

jarraitzen badu hainbat langile kotxea arrankatu ezinik gertatuko baita. Profesionalak etxean geratzear daude, dirurik ez galtzeko. Hori bai, ez pentsa atzera bueltan lehen baino hobeto egongo garenik. Pandemia betean erregai litroko prezioa euroaren azpitik egon zen. Ez gara maila horretara bueltatuko, egoera hura ere ez zelako normala. Merkaturia kudeatzen duten oligopolioek nahieran erabakitzen dute erregai litroko salneurria, eta garbi dute noraino estutu dezaketen. Eta egoera kritikoa izan baino lehen hartuko dute igoera eteteko erabakia.

### Eta noiz izango da hori?

Ez dakit, baina 15 egunean bukatuko dela esango nuke. Goraka jarraitzen badu dena geratuko delako. 2,15 edo 2,20ko muga harrapatuko du erregaiak, baino hortxe geratuko behar luke, oraingo martxan 2,5 euroan kokatuko delako erregai litroa. Kopuru horrek triskantza latza eragingo luke. Eta salneurri hori harrapatzen badu, estatuak konpentsazio moduren bat bilatu beharko du profesionalentzat.

korrika.eus

22.korrika

**HITZ EKIN**

Amurriotik Donostiara  
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

**MATERIALA HEMEN SALGAI:**  
Korrika dendetan,  
AEKren euskaltegietan eta  
[www.korrika.eus](http://www.korrika.eus) atarian.



Maialen Diez, Ane Lopez de Arregi eta Lorea Barkaiztegi Ilgora espazioko partaideak dira. AIURRI

# “Gorputzaren gainekeo ezagutza bermatu nahi dugu”

**ANE LOPEZ DE ARREGI, MAIALEN DIEZ, LOREA BARKAIZTEGI ILGORA ESPAZIOA**

Hilaren 21ean, astelehenarekin, irekiko ditu ateak Hernanin Ilgora espazioak. Emakumeen gorputza erdigunean ipini nahi duen talde multidiziplinarra da

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

Hutsune bati erantzuteko beharrak eraman zuen Ane Lopez de Arregi hernaniarra Ilgora espazioa irekitzera. Emakumeen gorputzak duen boterean sine-

tsita egingo dute lan, zirrikitu guztiak zaintzeko eta osatzeko. Horretarako, Maialen Diez emagin andoaindarra eta Lorea Barkaiztegi psikologo urnietarra ere izango dira bidelagun.

**Zu zara proiektuaren motorra, Ane. Behar propio bati jaramon egiteko premiaz ekin zenion osasungintza-zen bideari.**

**Ane Lopez:** Oso pertsona mugitua izan naiz txiki-txikitatik. Be-

rehala hasi nintzen atletismoan, zortzi bat urterekin. Alabaina, hamasei urterekin, zorte txarra izan nuen, izan ere, askotariko lesioak izan nituen. Nerabetan, argi nuen fisioterapia ikasi nahi nuela, kirol-munduari begira lan egiteko. Hala, Bartzelonara egin nuen salto, unibertsitatean hasteko asmoz: guztiz ezberdina zen mundu batekin egin nuen topo bertan, hau da, fisioterapiak nik aurreikusi baino ertz gehiago ukitzen dituela jabetu nintzen. Zenbat eta espezialitate gehiago ezagutu, orduan eta gehiago gustatzen zitzaidan.

Garai hartan, hain justu ere, hileroko min izugarriak izaten nituen, eta oso gaizki pasatzen nuen. Pentsa, lauzpabost egunez klasera falta izan dut horregatik. Hala, mundu guztiak ematen zidan erantzun bera: “Normala da”. Hori horrela, unibertsitateko bigarren mailan, irakasle batek esan zidan horrelako minek badutela tratamendua. Eta, zer pentsatua eman zidanez, beregana jo nuen. Horrela hasi nintzen, lehenengoz, zoru pelbikoa lantzen.

Horrekin nahikoa ez eta, kirolera bideratutako masterra burutzeaz gain, zoru pelbikoaren gainekeo espezializazioa egin nuen. Durangoko klinika batean egin nituen praktikak, askotariko egoeratan zeuden emakumeekin: erditze zaila izan zuen ama batekin, esaterako, bizpahiru hilabetez egon ginen tratamenduan eta ondo baino hobeto oroitzen dudan zerbait esan zidan: “Bizitza aldatu didazue. Hau topatu izan ez banu, ez dakit zer egingo nukeen”. Hori entzun bezain pronto, argi izan nuen zein zen nire bidea: hala, martxoaren 21ean irekiko dituzte ateak Ilgora espazioak.

**Zaila, erronkatsua izan al da hone-lako egitasmo batean hastea?**

**A.L.:** Hasiere batean ez zitzaidan erabakia hartzea kostatu. Behar bada, gerora, proiektua garatu ahala, konplexuagoa bihurtu da. **Bidean ez zaude bakarrik. Lorea, Maialen, zuek ere batu zarete.**

**Maialen Diez:** Ilusio handiz hartu nuen Aneren proposamena. Egun, ospitalean egiten dut lan emagin gisa, baina, egia da lehen arreta, hau da, osasun-zentroko lana oso gustuko dudala, besteak beste, erditze aurreko klaseak ematea, nolabaiteko lotura sortzen delako jarraipena egiten diozun amarekin. Oso polita da hartu-eman

hori. Hortaz, proposatu egin zidanean, eta ospitaleko lanarekin uztartu nezakeela ikusita, bi aldiz pentsatu gabe eutsi nion Ilgorari. Gainera, fundamentu handikoa da Ane, eta, nahiz eta gaztea izan, ideiak oso garbi ditu; horrek ere lagundu ninduen erabakia hartzen.

**Lorea Barkaiztegi:** Nik Maialenen eskutik izan nuen egitasmoaren berri. Oso interesgarria iruditu zitzaidan, eta, handik, gutxira, neu ere proiektuaren parte izateko proposamena luzatu zidan. Aurrera, bada!

**Ilgora. Ziklo bakoitzean. Gorputzaren zikloi erreparatuko al diezue zuenean?**

**A.L.:** Izena ere apur bat ideia horretatik dator; ilargiaren zikloarekin lotuta dago gure espazioa, emakumeen zikloekin, izan ere, horiei eman nahi diegu garrantzia, hain justu. Ez dugu geure gorputza ondo ezagutzen; oso mundu zabala da. Finean, modu batera edo bestera, gorputzaren gainekeo ezagutza bermatu nahi dugu.

**Bide horretan, zerbitzu individual eta pertsonalizatua eskaini nahi duzue; eta, horretarako, hiru profesional, nor bere esparrutik lanean.**

**M.D.:** Haurdunaldiaren jarraipenari dagokionez, prestakuntza-tailerrak egingo ditugu. Hiruron artean kudeatuko dugu hori. Nire kasuan, besteak beste, haurdunaldiaz zein erditze-prozesuaz mintzatuko naiz; bestalde, erditze osteko kontsulta pertsonalizatuak egingo ditut, baita edoskitzearen gainekeo laguntza eman ere.

**A.L.:** Alde batetik, fisioterapeuta naizenez gero, terapia orokorra egingo dut. Beste alde batetik, zoru pelbikoari berebiziko garrantzia eman nahi diot: haurdunaldian, niri dagokidan prestakuntzan, pelbisa, franja abdominala, zoru pelbikoa etabar landuko dugu. Finean, emakumea erditzeko unera ahalik eta baldintza fisiko egokienetan iristea dugu helburu. Horrez gain, disfunzioetan arreta ipiniko dugu, hala nola, hileroko minak, inkontinentziak, sexu-harremanetako minak, prolapsuak, episiotomiak, zesa-reak...

**L.B.:** Alderdi psikologikoari zein emozionalari erreparatuko diot nik hitzaldietan nahiz tailerretan. Informazioa emateaz gain, beren premiek espazioa izango dute gurean; beldurrak azter-

tuko ditugu, baita espektatibak ere. Halaber, gorputzaren eta emozioen harreman estuaz jakitun, horri lotutako edozein laguntza ere bermatuko dut, emakumeentzat eta gizonentzat.

**M.D.:** Ildo beretik, kanpo-ekarpenak oso ongi etorriak izango dira gurean. Pentsatu dugu, hilean behin edota bi hilean behin, tailerrak sortzea. Gaiak eskakizunen arabera erabakiko dira.

**Talde multidiziplinarra osatzen duzue. Garrantzitsua al da gorputzari hainbat begiradatik eustea ongizatea bermatzeko?**

**L.B.:** Jakina. Makina bat arrazoiengatik sortzen zaizkigu zauriak gorputzean. Hortaz, aberasgarria izango da zauri horiek osatzea, askotariko abiapuntutatik.

**A.L.:** Min batek ez du sekula jatorri bakarra. Zoru pelbikoan, adibidez, psikologoaren rola faltan bota izan dut, maiz; oso atal intimoa da eta eragin handia izan dezake pertsona baten gorputzean. Adibidez, alderdi psikoemozionalak pisu handia dauka 17 urteko nerabe bat



Hilaren 21ean, astelehenarekin, bere atea irekiko ditu Ilgorak. AIURRI

datorkidanean esanez ez duela sekula lortu minik gabe sexuharremanik izatea. Ziurrenik, ezjakintasanak lotsa sorrarazten du une horretan, eta pertsona "arraroa" sentitzen da. Oraindik ere, kosta egiten zai-

gu horrelako gaien gainean hitz egitea. Isilpean ematen diren aferak dira, eta guk irtenbidea eman nahi diegu horiei.

**Zenbait zerbitzu gizonetzko bideratu arren, batez ere, garrantzia**

**"MAKINA BAT ARRAZOIRENGATIK SORTZEN ZAIZKIGU ZAURIAK GORPUTZEAN"**

**emakumeek izango dute Ilgoran. Ez da kasualitatea.**

**A.L.:** Gizonezkoentzat ere bideratu dugu arreta, zeren zoru pelbikoa baitaukate, eta, ondorioz, disfuntzioak ere eduki ditzakete. Alabaina, beharra ikusten dut, batez ere, emakumeei begira, espazio bat sortzea. Gai tabuak izan dira (eta dira) denbora luzaroko emakumearen gorputzari lotutako kontuak. Eta ideia horixe dugu oinarri: segurtasuna eta konfiantza eman nahi diet emakumei, nork bere burua ere zaindu behar duelako; ez dugu gainerakoak zaintzen egon behar beti.

**Hitz gutxian, borobiltzeko. Zer da zuentzat Ilgora.**

**A.L.:** Konfiantza.

**L.B.:** Ilusioa.

**M.D.:** Aukera berri bat, bai guretzat, bai etorriko diren emakumeentzat.

**"IRTENBIDEA EMAN NAHI DIEGU GUREAN ISILPEAN MANTENDU DIREN AFEREI"**



# ANDOAINGO EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA

**2022ko  
udaberriko  
ikastaroak**

**Batukada feminista**  
ASTELEHENAK. Apirilak 25; maiatzak 9, 23; ekainak 6, 20.  
18:00-20:00, Leizaran Institutua.  
Botapa Batukadaren eskutik.

**Konfiantza sortu eta elikatu**  
LARUNBATAK. Apirilak 30; maiatzak 7.  
09:30-13:30, Urigain.  
Nerea Redondo Otamendiren eskutik.

**Elektrizitate lantegia**  
ASTELEHENAK ETA ASTEAZKENAK.  
Ekainak 6, 8, 13, 15, 20, 22, 27, 29.  
17:00-20:00, Urigain  
Paz Carbajosa Dalmauren eskutik.

**Kosmetika naturala**  
1go taldea: ASTEAZKENAK. Apirilak 6, 13, 20, 27.  
2. taldea: ASTEAZKENAK. Maiatzak 4, 11, 18, 25.  
18:00-20:00, Urigain. Kris Lizarragaren eskutik.

**Gorputz kontzientziatik mugimendu askera**  
OSTEGUNAK. Apirilak 7, 21, 28; maiatzak 5, 12, 19, 26; ekainak 2, 9, 16.  
18:00-19:30, Urigain.  
Maider Oiartzabal Zigandaren eskutik.

**Autodefentsa feminista**  
MAIATZAK 21. 10:00-14:00 eta 15:00-19:00,  
Allurralde kiroldegia. Emagin elkartearen eskutik.

**Bizikleten lantegi mekanikoa**  
LARUNBATA. Ekainak 4 edo ekainak 11.  
11:00-12:30, Otieta  
(Leizaran bisitarien etxea)

**Jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturala**  
ASTEARTEAK. Apirilak 5, 12, 26; maiatzak 3, 10, 17, 24, 31; ekainak 7, 14, 21  
17:00-19:00, Urigain  
Sorbururen eskutik.

**Nire bizitza berreskuratzen**  
OSTIRALAK. Maiatzak 6, 13, 20, 27  
18:00-20:00, Urigain.  
Johana Muñoz Castilloren eskutik.

**Berriketaldi feministak**  
APIRILA: Zaintza-lanen demokratizaziorantz.  
Zaintza lanen egoera Andoainen. (Emagin Elkarte).  
MAIATZA: Radfem, Terf, Cis, Trans... Feminismoak eta Feminismoaren subjektuak.  
Bastero kulturgunea, 18:30.



IZEN EMATEA ETA HARREMANA:  
[jabekuntza.andoain.eus](http://jabekuntza.andoain.eus)  
Andoingo Udaleko Berdintasun Lansaila.  
Tel. 943 300 830, luz. 380 – 397;  
[berdintasuna@andoain.eus](mailto:berdintasuna@andoain.eus). Andoingo Udaleko ATARIA zerbitzua

## POSTONTZIA

ELKARTASUN EKIMENA URNIETA

## Utzi bakean Jon, Ruben eta Euskal Herria

2022an sartuta gaude, 2002ko, 2011ko, 2018ko egoera atzean utzita era argi batean. Hala ere, Euskal Herriaren aurkako oldarraldiak bertan dirau, ez du etenik. Oraingoan, Jon Lizarribarri eta Ruben Gelbentzuri bi epaiketa prozesu ireki dizkiete, bata 2020an eta bestea 2021an, Itxaso Zaldua eta Mikel Karrerarekin batera. Azken hauek aurretik preso daude: Mikel frantziar estatuko ziegetan, eta Itxaso 2020an kartzelaratu zuen estatu espainiarrak.

Rubenek eta Jonek 2020tik haien etorkizunaren gaineko segurtasun falta dute, edozein momentutan presondegirako bidea egin beharraren mehatxupean bizi dira eta 2020ko amaieratik: 15 egunero, komisaldegian sinatuz eta kontuak blokeatuak izanik. Hau gutxi balitz, 2013an, biak kartzelaratuak izan ziren, eta 2014an aske utzi zituzten haien aurkako frogarik ez zegoen eta. Bai 2013ko sumarioan, bai 2020koan, bai 2021koan, 2002ko Euskadi Ta Askatasunaren ekintza batzuk leporatzen dizkiete, baina, nahiz eta 20 urte igaro, epaileek ez dute frogarik lortu haien aurka. Jon eta Rubenen aurkako jazarpen jarrai hau etsaiaren gorroto amaigabearen adierazle argia da.

Egoera honek haien eguneroko bizitzan eragin sakona du, presio emozionala eta pertsonala sortuz. Hortik haratago ere, eraso honek kostu ekonomiko handia du: batetik, kontuen blokeoa dela medio, eta, bestetik, defentsa juridikoa ordaindu beharragatik. Azken honen eraginez, 8.000 eurotik gorako faktura dute Rubenek eta Jonek ordaintzeke: epaitegietako prokuradorea eta abokatuen zerbitzuak ordaintzeko kantitatea, hain zuzen.

Horregatik, dei egiten dugu Jonen eta Rubenen aldeko elkartasun ekimenetan parte hartzera eta, ahal den heinean, ekonomikoki laguntzera, jasaten ari diren jazarpenaren kostuari aurre egin ahal izateko.

Norberak bere aportazioa egin dezake ondorengo kontu korrontean: ES70-3035 0282 51 2821023860.



UDALA

## Saria Oyarbide urnietarrari

Merkataritza Enpresa Sarien XXVIII. edizioa antolatu du Merkatal Ganbarak, eta eskualde bakoitzean merkatalgune kuttunena erabakitzeko aukera bezeroen esku utzi du. Beterri-Buruntzan Lasarte-Oriako Imagine jantxidenda saritu dute. Azken honetako arduraduna da Ainhoa Oyarbide urnietarra.



Aurreko edizioetako ekimena. AIURRI

## Parte-hartze prozesuari buruzko karpa, asteburuan

16 urtetik gorako urnietarrek proposamenak aurkezteko aukera dute, hilaren 27ra bitarte

Erredakzioa URNIETA

Prozesuaren gaineko aurkezpena egin ostean, Urnietako Udalak informazio karpa baten bidez xehetasunak eskainiko ditu, aurrez aurre. Martxoaren 18an, gainera, photocall bat egongo da informazio karpan bertan. Bertan parte hartzen duten pertsonen argazki bat aterako zaie, eta argazki hori eramango duen oroiargi bat oparituko zaie.

**Martxoak 18, ostirala:**

10:00-14:30 Etxeberri plaza.

17:00-20:00 Guria inguruan.

**Martxoak 19, larunbata**

10:00-14:30 San Juan plaza.

## Ikasleen aurrean

Parte-hartze prozesuari buruzko xehetasunak eman zizkieten Egapeko eta Magaleko Lehen Hezkuntako 6. mailako ikasleei Jorge Segurado Alkateak eta Mikel Pagola zinegotziak. Urnietako Udalak, ohar bidez adierazi duenez, "parte-hartze kultura erroto nahi du herritar guztien artean, baita herriko txikien artean ere".

## POSTONTZIA

EH BILDU URNIETA

## Proposamenak merkataritza eta gizarte zerbitzuei begira

Bada denbora bat Udal gobernu taldea agortua denaren sintomak nabaritzen hasiak garela eta gero eta argiago dugu aldaketa politikoaren beharra. Gobernuaren ekimen faltaren aurrean, ondoko proposamenak egiten ditugu bi arlo nagusitan eta lurtzoruaren salmeta operazioaren inguruko gardentasuna eta informazioa eskatzen dugu.

Merkataritza:

Merkataritzan aditua den teknikari bat jarduera erdian, gutxienez urtea amaitu artean.

Zereginak:

- Merkatarien beharrak banan banan aztertu.
- Merkatarien gunea WebGunean egunean mantendu.
- Diru-laguntzen berri jaso eta bete beharreko burokraziekin lagundu.
- Honetarako, merkatarien ordutegiari egokizuz eta herrian bertan dagoen bulegoa gaituko genioke.
- TicketBai eta FacturaBai jartzeak sortuko dituen inbertsioetan diru-laguntzak gaitzea.

Gizarte Zerbitzuak:

- Familien egoeran lagunduko duen Plax aholkularitzaren kontratazioa.
- Formakuntza familientzat eta laguntza teknikoaren ordenagailu eta online erabileran.
- Ludopatía digitala lantzeko tailerrak.
- Depresioa, bakardadea,... Krisiak eragin dituen buruko gaixotasunekin tailerrak eta zerbitzuak indartzea, kaltetu zein inguruko.
- Etxean zaintzara behartuak dauden laguntzaren indartzea diru-laguntza lerroak haundituz. Emaginen informeak garbi utzi zuen honen beharra, baina ez da ezer aldatu eta Covid aurreko zifrak latzak baziren, oraingoak ez dira hobeak izanen.
- Kontratazio duinean adituak diren Maitelan bidelagun izatea.

Proposamen hauek gain, Udal gobernuari Urnietak dituen azken lurtzoruaren salmenta operazioaren inguruko gardentasuna eskatzen dugu. Urnietak ondarea galduko du eta jasotzen den dirua ezin du izan gastu korrontea edo inbertsio desegokietan erabiltzeko.

Ekimen hauek martxan jartzea urgentziazkoa eta egingarria da borondate politikoa baldin badago udal gobernuaren aldetik. Urnietako EH Bildu beti egongo da urnietarren ongizatearen aldeko lanerako prest.



UDALA



AIURRI

## Haize ufada bortitzak eta kalima

Astelehen gauean haize ufada bortitzak altxa ziren eskualdean, eta haizearen indarrak Kale Nagusiko hesi-tartea lurrera bota zuen. Biharamunean kalimaren arrastoak nabarmenak ziren udalerrri osoan. Afrikako lurretatik zetozen.



AIURRI



Julio Miron. AIURRI

## Julio Miron Gonzalez andoaindarra zendu da

Ezkerreko mugimenduetan murgilduta ibili izan zen, historikoki

**Xabier Lasa** ANDOAIN

1947an Ceclavin herrian jaio zen eta martxoaren 9an zendu zen Andoainean, 75 urte zituela. 1970-1976 epealdian lau aldiz atxilotu zuten, Comites Obreros sindikatu klandestinoan militatzen zuenean. Tratu txarrak jaso zituela salatu zuen gerora. 2017an Oroituz Andoainean elkarteak, Andoaingo Udalaren babesarekin, garai hartan hainbat herrikidek pairatutako giza eskubi-deen urraketak dokumentatu zituen. Lan hori baliagarria izan zen Maria Servini epaileak ireki zuen bide judiziala osatzeko. Argentinako Kereila bezala eza-guna da ekimen hori.

## POSTONTZIA

**MILA GARRALDA** ANDOAIN

## Bekoplazako pasabide berrian, bada zer hobetua

Alabarekin urte askoan oztopo arkitektonikoekin sufritu zuen ama naizen aldetik, gaur egun min handia ematen dit gurgilduan aulkietan ibiltzen direnak, edota haur kotxeekin dabiltzan gurasoak, eskailerak jaitea nahiz igotzea kosta egiten zaion jende heldua, erosketa-orgarekin dabilen jendea.... guzti horiek kontuan hartu gabe obra berriren bat egiten den aldira.

Bada, une honetan halako ezinegona daukat barruraino sartuta, ikusita Bekoplazako pasabide berriko eskailera.

Udalak baditu teknikariak herritarrok baino gehiago dakitenak, baino iruditzen zait baduela erremedioa oztopo arkitektoniko horrek, hala ere. Eskailerak nahiko zabalera badauka arrampa bat jartzeko moduan hormaren aldean. Era horretan, eskaileren alternatiba izan daitekeen malda, ezintasun edo elbarritasunaren bat daukan edonorentzat irisgarria edo leuna bihur daiteke.

Bestalde, nori bururatu zaio eserleku horiek jartzea pasealeku horretan? Beharbada egundokoak dira ikuspegi artistiko edo estetikoak; ez ditut alderdi horietatik juzgatuko. Bakarrik esango dut ez dutela balio praktikotasunaren ikuspegitik. Ezinezkoa da horietan eseri, bizkarra eta gorputza lasai jarri, eta Leitzarango ibaiaren soinu zoragarriaz gozatzetik; are gutxiago egin dezake hori jende helduak. Zer kostatzen zen beti-betiko bankuak jartzea, beren erosotasuna urtetan erakutsia dutenak?

Arkitektonikoki trabatsuak diren eskailerak eta erabili ezinako banku horiek badute erremedioa. Errektifikatzea jakintsuen kontua omen...



Leitzarano ibaiaren ondoko pasealekua. AIURRI



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

### Aiurri eskuragarri:

Ebeze ebeke harpidetza-sistema. Andoainean urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

### Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus) [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) @aiurri

### Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

### Maketatzailea:

Maddi Trubuelo. **Kudeaketa, harpidetza:** Garbiñe Ugartemendia. [idadkaritza@aiurri.eus](mailto:idadkaritza@aiurri.eus)

### Publizitatea:

Fer Irazu. [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

### Banatzailak:

Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

### Diseinua:

Goiena Komunikazio Taldea.

### Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus). Whatsapp-a: 619 163 537.

### Lege Gordailua:

SS-1078/04.

### ISSN:

1698-4870.

### Tirada:

4.000 ale.

### Inprimategia:

Zeroa Multimedia.

### EKOIZLEA:



### ALJATUAK:



### BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



### DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



### ZIURTAGIRIA:



### BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

## Haritzak Berrasoetan

Egape ikastolako eta Magale ikastetxeko lehen hezkuntzako bosgarren mailako ikasleek haritzak landatu zituzten, Berrasoeta aldean. "Horrela, eremu horretan dagoen hariztiari jarraipena emango zaio", adierazi zuen Udalak ohar batean. Etorkizunean eremu horretan dagoen hariztiari jarraipena emango diote.



AIURRI

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Aurrez, Miarritzen 1958an eta Iruñean 1962an, azpi txapelketa bana lortu zituen. Gainera, bere ibilbide arrakastatsuan, lau txandetan Espainiako txapelketa (1962-1965) eta hiru azpi-txapelketa (1960, 1961, 1966) eskuratu zituen.

Bestalde, Gipuzkoako bost txapel eraman zituen burura, Juan Cruz Artola herrikidearekin bikotea osatuta horietako hiru. Kirol garaipen horiez gain, Espainia mailako Kirol Merituaren Domina ere jaso zuen urte haietan. Andoainen urtetan aurrera doazen herritarrentzat, ziurrenik, oroitzapen gehien eragiten dituen kirolarietako bat izango da.

Ondoren datorren elkarrizketak, *Joxe Mari Iturzaeta. Pala belaumaldi bat* (Egilea: Joxe Mari Iturzaeta Batzordea, Andoain, 2011) liburua du oinarri.

**Nola hasi zinen pilotan?**

Andoainen zaharrenetakoa, XVI. mendekoa den Iriarte etxean jaio nintzen. Frontoi zaharra aurrez aurre neukan, eta gertu, kontsejupea. Hortaz, ez nuen aitzakia askorik behar goizetik gauera pilotan aritzeko. Eskuz jokatzeko nuen, baina baita gomazko palletarekin. Aitak erremontereko saski bat oparitu zidan arte; orduan, berarekin frontoi zaharrean hasi nintzen. Txukun moldatzen nintzen, baina mirariak ezin ziren egin han. Alde batetik, bere ezkerreko hormaren ondoan Zubiaurre etxaldea baitzegoen, bere bi zakur izugarriekin; aske zeudenean, etxetik gertu eroritako pilota guztiak hortzetan hartzen zituzten. Larru guztia puskatzen zuten, eta barruko kiskia (nukleoa) etxeko sarreran uzten zuten! Frontoiaren eskuinaldetik, berriz, guardia zibilen kuartela zegoen. Euren emakumeak beti egoten ziren kuarteleko sarreran etxeko lanetan, eta pilota haien ingurura oker botatzeko zorte txarra bazenuen, ziurtatuta liskarra! Gauzak horrela, neurritz kanpoko pilota zaletasuna eduki bai, baina beti zailtasunen artean!

**Noiz heldu zenion palari?**

17-18 urte arte gehienbat eskuz jokatu nuen. 14 urte nituela, guraseok barnetegi batera bidali ninduten Marianisten kongregazioarekin ikastera, Oroz-Mugairira. Han, esku pilota beste ikasgai bat zen; horrela ikasten da pilotan jokatzeko! Denok jokatzen genuen eskuz, baita pilotaz

# Luken Unanue, palako munduko txapeldun izan zen andoaindarra

Luken Unanue Pastorrek (Andoain, 1932) martxoaren 4an 90 urte bete zituen; Goikoplazan Iriarte etxean jaio zen, eta bertan bizi da egun. Pala motzeko munduko txapela irabazi zuen 1966an, Montevideon (Uruguai) jokatu zen pilota txapelketan



Luken Unanue, Montevideon lortu zuen munduko koparekin etxean. AJURRI

ideiarik ere ez zuten madrildarrek ere; denek, Beobidek izan ezik, piano-jotzailea baitzen eta ez baitzizaion hatzak hondatzea komeni. Debeekatuta geneukan erremontean edo palan jokatzea, eta arrazoa sinplea zen: frontoitik hurbil, atzean, jantokia zegoen, eta noski, haraino iristen erremitako pilotek txikizioak eragin zitzaizketen leihoetan-eta. Andoainera itzuli nintzenean, Euskalduna eta Hernani futbol taldeetan jokatu nuen bolada batean, baina batez ere palari ekin nion.

**Eta zergatik hautatu zenuen pala, azkenean?**

Alejandro Gantzarain Andoaingo medikua, bere seme Jesus Mari (medikua hau ere), Felipe Arratibel nire osaba eta laugarren jokalaria batek astero hitzordua edukitzen zuten Beotibarren, pala motzean jokatzen. Egun batean, laugarrenak huts egin, eta animatu egin ninduten. Nik 19 bat urte izango nituen, eta peritatze industrialia ikasten hasita nengoan.

Horrela, Gipuzkoako bigarren mailako txapelketa jokatzen aukera iritsi zitzaidan. Osabarekin pala luzean jokatu nuen, eta Gantzarainekin motzean; ni aurrelari. Gantzarainek egundoko meritua zeukan, 60 urte inguru zituelako. Oso trebea zen, nahiz eta bigarren koadrotik atzera pilotarik ez bidali.

**Nortzuk aritzen ziren garai hartan pala motzean, Andoainen?**

Aipatutakoez gain, Martin Lasarte (Realeko entrenatzaile ohiaren aita), Joxe Manuel Aizpurua, Carmelo Balda eta Jose Luis Lasarte; bakan batzuk ginen, egia esan. Pittin bat dirudun zirenen kirola zela esan daiteke, materiala (erreminta, pilotak...) erosteko ahalmen ekonomikoa zeukatena, eta gainera, noizean behin Donostiako (Gros) edo Tolosako (Beotibar) frontoietan ordua alokatzeko aukera zutenena.

Herriko gazte gehienek esku pilotari heltzen zioten amorrubiziz, eta desafio xeble samarrak antolatzen zituzten kontsejupean zein frontoi zaharrean noizean behin, herritarren gozamenerako.

Pala praktikatzeko zekarren zailtasun ekonomikoa aipatzen hasita, ez litzateke bidezkoa izango plazako frontoiko zoruaren gaia ez ekartzea hona. Oso lakarra baitzen! Pilotetan eta alpargatetan diru mordoa joaten zitzaigun, pala zein esku jokalariei. Esamesei kasu eginez gero, gauza bitxi bat gertatu omen zen frontoia eraiki zenean: lehen hiru koadroak erabat labainkorrak egin ziren hasieran, baina dirudienez, alpargata-saltzaile batek, herriko agintean kargua edukita, agindu omen zuen koadro guztiak zolu lakarrekoak jartzea. Negoziolari begiratu hark! Baldintza kaltegarri horrek jendearen irudimena kitzikatu zuen, eta horrela, Rafael Elizondo zesta-puntista handiak, esate batera, kandelak egiteko argizariarekin goxatzen zizkigun pilotak, gehiago irauan zezaten.

**Zergatik hartu zenuen pala motza, ia modalitate guztiak probatu ondoren?**

Berak ematen zidalako pozik handiena! Pala motza beti izan da politagoa praktikatzeko eta ikusteko. Ez konparatu luzearekin; pilotakada askorik gabeko jokoa da azken hori, eta ia ordu erdi behar duzu tanto on bat ikusteko. Gainera, Urumean (Donostia) baino ez zen jokatzen Gipuzkoa osoan, eta jokalaria bakan bakanak ziren maila afizionatuan zein profesionalen.

**"NEURRIZ KANPOKO PILOTA ZALETASUNA EDUKI BAI, BAINA BETI ZAILTASUN ARTEAN"**



### Gipuzkoako txapelketan debuta egin ondoren, meteorikoa izan zen afizionatu mailan egin zenuen igotzea.

Bigarren urtean, 1956an, Juan Cruz Artola andoaindarrak deitu zidan, pala motzean “instituzio” bat ordurako Gipuzkoan. Elkarrekin lehen mailako bizpahiru txapelketa irabazi genituen Gipuzkoan. Itzela izan zen hori, Gipuzkoan zeudelako munduko pala-kortistarik onenak; meritu handia zeukan Gipuzkoan irabazle izateak, Espainian izateak baino gehiago. Urte batzuk geroago, Tito Llorca handiarekin bikotea osatzea egokitu zitzaidan. 60ko hamarkadan, Espainiako finalak jokatu genituen, eta horietako lau irabazi genituen, etenik gabe, 1962-1965 epealdian. Esan daiteke Gurrutxaga, Fernandez, Llorca eta lauok izan ginen *oilarrak* Gipuzkoan pala motzaren afizionatuen panoraman, 1955-1966 urteetan. Lauren artean egiten ziren bikoteen arteko konbinazio gehienak.

Gainera, lau urtean behin jokatzen ziren munduko txapelketetan parte hartzeko zoria eduki nuen. Lehenbizikoa, 1958an, Sebastian Aristirekin Donibane Lohizunen eta Biarritzen jokatu nuen. Finala iritsi bitarteko partida guztiak jokatu nituen, baina azken partidu handi horretarako, Sola madrildarra hautatu zuten; estatuko federazioen artean zegoen liskarren eta protagonismo grinaren biktimia izan nintzela uste dut. Iruñean 1962an jokatu zen mundialean, Gurrutxagarekin paleta larruz jokatu nuen, eta zilarrezko domina lortu genuen, P. Bareits (oso pilotari ona) eta B. Clairacg frantziarrek finalean galdu ondoren. Azkenik, Montevideon (Uruguai) 1966an jokatutako munduko txapelketan, urrezko domina irabazi nuen Santiago Mendiluzerekin, mexikarrak mendean hartuta.

### Zein postutan jokatzen zenuen?

Aurrelari hasi nintzen, eta urtetan primeran ibili nintzela esango nuke, baina bi pilotakada jo zizkidaten urte batean. Psikologikoki markatu egin ninduten, eta orduan erabaki nuen atzelari izatea, ezin nuela gehiago atzetik ziztu bizian zetozkidan pilota-balen peskizian jokatu.

Badaukat pasadizoa kontatzeke, pilotakaden atal horretan. Iruñean Espainiako txapelketa jokatzen ari ginela, behin, ostatu hartzen genuen hotelean, gure



Llorca, Unanue, Gurrutxaga eta Fernandez; 50. eta 60. hamarkadetan urrezkoa laukotea osatu zuten Gipuzkoan, pala motzean. UNANUE

finala ikusi nahi zuen pertsona batekin egin genuen topo. Nik emandako sarrera batekin frontoira sar zen. Bada, partidari zehar, errebotera zabalera etorri zitzaidan pilota bati, palaren ertzarekin eman nion... Eta hara nola diren gauzak: frontoia ikusleez gainezka egon arren, hoteleko gizon hori bete-betean jo nion sudurrean! Jo, eta hautsi! Tebeoetako pasadizoa dirudi, baina benetakoa izan zen gertakizuna!

### Zer ezaugarri nabarmenduko zenuen zuzan?

Nire jokoa besteek definitu behar luketela iruditzen zait, baina seguroa bat nintzela esango nuke, pilota guztiak joko eremu barruan sartzen dituen horietakoa.

Eskuina nintzen, baina ezkerrekin ere egoki moldatzen nintzen; kontsejupean sartutako orduak eta orduak, horixe izan zen niretzat unibertsitaterik onena bi eskuekin aritzeko. Ahuleziak aipatzen hasita, indarrez justu ibiltzea! Gogoan dut txapelketa bat, Artolarekin bikote eginez; pilota bat laugarrengo koadrora etorri zitzaidan, eta hura haustera joan beharrean, zer egin nuen? Ezkerrarekin, dejada eskuin zabalera. Biribil-biribila atera zitzaidan, eta publikoaren txalo zaparrada jaso nuen. Artola etorri, eta sekula ahaztuko ez zaidan errieta egin zidan: “*Izan dadila azken aldia!*”. Halakoa baitzen orduko pentsamoldea: eskuinez, zartakoa eman, eta kito, arriskatzen ibili gabe.

Ulertzekoa da kontua, izan ere ezkerrez pala motzean jo eta gaizki ateratzen bazaizu, saldu-ta geratzen zara!

### Iraganeko mentalitatea aipatzen hasita, ez zen ohikoa zuk egiten zenuen prestakuntza.

Pilota munduan norberaren esku egon da prestaketa pertsonala, asko ez dela arte. Gure garaian gehienek uko egiten zioten, eta gogoratzen naiz Montevideon, Espainiako ordezkatzen genuen pilotarietara nola agindu ziguten hondartzara joatea eta gimnasia pixka bat egitea. Bada, hurrengo egunean esku-pilotarietara, gehienak nafarrek, Uruguaiako federazioko fisioei deitu behar izan zieten masajeak emateko eskatuz; harria baino gogorra baitzeukatzen gorputz osoa, ezin mugiturik! Ez zuten bizitzan ariketarik egin, pilotan jokatu besterik ez!

Ni beti saiatu nintzen pilotarien joera hori hausten, eta batik bat txapelketan bezperetan gorputza astintzen nuen; ez dakit lotsagatik ala duintasunagatik, baina kantxan baldintza fisiko onetan azaldu nahi izaten nuen. Pare bat astez Etxeberrietako zelaira joan, eta han Bixente Huizi, Euskalduna futbol taldeko entrenatzailearen agindupean jartzen nintzen gimnasia egiteko. Leizotz baserri-auzoan korrika ere ibiltzen. Horretarako, lantokira joan aurretik, goizeko 07:00ak aldera, txandala jantzi (orduan txulotzat jotzen zirenen janzkera zen), etxetik irteten nintzen. Bidean, baserriarrek agurtzen ninduten,

“*Egunon, Unanue! Egualdi erarekin zabiltza gaur!*”, haien artean edukitzen nituen jarraitailerik zintzoenak.

Korrika ez bazen, frontoian geratzen nintzen goizez. Pala hartu, eta ezker-eskuin, ezker-eskuin, eman eta eman, bakar-k! Goizeko 08:00etan Labordeko langileak lanerako bidean zihoazela, harriturik esaten zidaten: “*Hik dakak zaletasuna, hik!*”. Pixka batean, niri begira geratzen ziren.

### Zure garaipenak goi-goian ospatzen ziren Andoainen.

Herri osoak ospatzen zuen, bai, 5.000 biztanle inguru izango ginelako, eta denok ezagutzen genuelako elkar. Urte haietan Patxi Irizar Garro krosean eta ni pilotan, Andoaingo kirol idoloak ginen. Kuadrillako lagunak ziren nire lehenbiziko jarraitzaileak, sutsuenak, mordoak baikinak.

Espainiako lehen txapelketa irabazita, musika bandarekin egin zidaten harrera. Uruguaiako mundiala 1966an irabazi genuenean, berriz, ikusgarria bezain hunkigarria izan zen Donostiako tren geltokian abenduaren 14an egin zidaten harrera. Egun horretantxe, estatuko lege organikoari buruzko erreferendum moduko antolatutako frankismoak; polizia aztoratuta ibili zen gurekin, pentsatuz Francoren aurkako protesta antolatutako gurela. Ez zen ezer gertatu, eta hurrengo egunean Andoaingo udalak harrera ofiziala normal-

tasun osoz antolatutako ahal izan zuen. 1967ko San Joan bezperan, omenaldi herrikoia eskaini zidaten.

### Ez zenuen profesionaletan sartzeko tentaziorik izan?

Aukerak eduki bai, baina inondik ere nahi ez! Zoragarria baitzen afizionatu mailako pilota giroa! Egia da sufritzea eta disiplina eskatzen zidala, eta egia ere bada, familian amak esaten zidala hobe nuela ez jokatzea. Baina nik gozatu egoten nuen, eta horrek balio zuen niretzat! Papelera Leizaran paper-lantokian lanpostu ona neukan, eta ez neukan pilotaren beharrik bizimodua ateratzeko. Guri bidaiak eta dietak ordaintzen zizkiguten eta kito.

Pilotari profesionalek lau duro kobratzen zuten; agian Abrego erremontista salbuetsi genezake, *Arronizko aztia*. Panorama horrekin, ez zen oso erakargarria gazteentzat pilotatik bizitzearen ideia, batez ere lan-irteera edo arazo ekonomikorik gabeko familia zutenentzat.

Debutari muzin egiteko beste arrazoietako bat, erramintako pilota profesionalak ospe ez oso edukitzea izan zitekeen. Diru asko jartzen zen jokoan, eta batzuetan esamesak pizten ziren markagailuko tanto-jirabira harriarriak zirela medio. Ez dut esaten tongoa ohikoa zenik, baina gauza arraroak gertatzen ziren. Jokoak ez du inoiz errentarik eman, euskarazko esaera batek dioen bezala...

### Zein garitan erretiratu zinen, eta zergatik?

1968 inguruan erretiratu nintzen. Oso bizitza sakrifikatua zela ohartu nintzen; Espainia osoan zehar etengabe kilometroak eta kilometroak pilotatzen ibilia nintzen, eta familiari denbora gehiago eskaintzeko garaia heldu zela ohartu nintzen. Hori bai, lagunekin jokatzen jarraitu nuen; Altuna, Etxeberria eta beste batzuekin, adibidez, larruzko pilotarekin paletan aritzen ginen Urrietako Salestarretan.

50 urtetik aurrera, aldaka lata ematen hasi zitzaidan. Izan ere, itxuraz ez bada ere, pilota oso kirol bortitza da, higadura handia eragiten dizuna. Gero eta gehiago jaitsi nuen pistoia, harrik eta 1980an behin betiko utzi nuen arte. Portzierto, urte horretan Andoaingo larruzko paleta txapelketa irabazi nuen, Arraten.



Tailerra eskaini zuen Lekaion, asteartean. AIURRI



Mikel Goñi. AIURRI

# “Autoko piezak bezalakoak dira eskiak; zaindu egin behar dira”

**MIKEL GOÑI** ESKIAK ZAINTEKO IKASTAROK EMATEN DITU

Eskiatzaile nafarrak eskiak zaintzeko ikastaroa eskaini zuen asteartean, Zanpatuzek antolatuta. Herrira etortzen den bigarren aldia da, eta dozena bat lagun elkartu ziren

**Andoni Urbistondo** URNIETA  
**Nor zaitugu, Mikel?**

Iruñekoa naiz, baina duela 14-15 urte Arrarats-en bizi naiz, Basaburuan. Betidanik ibili izan naiz mendian, mendizale petoa naiz. Hortik etorri zen eskia, jendea eskiatzen ikusi ondoren, eta gero mendia eta eskia uztartzen dituen mendi-eskia edo trabesia egiten hasi nintzen. Iruñetik Arraratsera mugitu nintzenez, jabetu nintzen eski-zerbitzuak urrunago daudela,

Arrarats Iruñetik 40 kilometro-ra dagoelako, eta etxean eskiak mantentzeko zerbait egitea pentsatu nuen.  
**Zeure materiala zaintzen hasi zinen, zeure kabuz, ezta?**

**"ETORTZEN DEN JENDEA IBILIA DA MENDI-ESKIAN, GRINA BADU JAKITEKO"**

Bai. Mekanikoa ere izana naiz, esku lanetan iaioa. Formatzen eta ikasten hasi nintzen, eta hiruzpalau ikastaro egin eta gero, horietako pare bat Jacan (Huesca), materiala erosi eta nire eskiak prestatzen hasi nintzen. Lagun asko gara mendi eskian murgilduta gaudenok, eta haiei laguntzen ere hasi nintzen, fijazioak jartzen eta beste.  
**Normalena materiala erosteko, edo zaintzeko, dendara joatea litzateke, ezta?**

Bai, noski, baina Euskal Herrian apenas dago dendarik. Interneten nabigatu behar duzu asko, baina ez dago aparteko materialik. Gero, eskietako fijazioak jartzea eta garestia da, eta horren ondorioz, hainbat lagun niregana etortzen hasi ziren. Azpiegitura jakin bat eduki behar da, besteak beste, eskiak txukun eduki ahal izateko, baita fijazioak jartzeko ere. Alabaina, askorentzat ezinezkoa da mantenurako baliabide horiek etxean edukitzea.

**Ez zara eskiak txukuntzeaz bizi.**

Ez, ez, nire lana daukat; zaletasuna da gehiago. Ez naiz profesionala. Dendarik gabe, edo elurretan bizi gabe, zaila da profesionala izatea. Estra bat bezalako da, zaletasunaz gain. Eskiak zaintzen ditut, zorroztu eta beste, makina espezifiko batekin. Lehiatu ere lehiatzen dut, ez maila gorenean, Altitoy proban, adibidez, eta hain zuzen hortik sortu zen aukera Donostiako Club Vasco de Camping mendi elkartearen ikastaro bat emateko. Duela zortzi urte hasi nintzen, eta orain urtero egiten da. Zanpatuz mendi elkartearekin bigarren urtea izan da.

**Eskiak badituz etxean, baina zaindu, gutxi zaintzen ditut. Joera orokorra al da hori?**

Eskiak ez badituzu mantentzen, izorratu egiten dira. Autoko ordezko piezak bezala, aldatu egin behar dira.

**Ze jende mota bertaratzen da ikastaroetara?**

Etortzen den jendea ibilia da mendi eskian, grina badu jakiteko. Ikastaro praktikoa dira: eskiak nola hartu, sentitu... Bizpahiru ordutan, dena den, ez da erraza dena transmititzea. Zoletako zulo txikiak nola estali azaltzen dut, kanto edo ertzak nola zorroztu eta mantendu,

edota argizaria nola eman, modu ezberdinak daudelako, merkeagoak direnak. Ez da asko behar eskiak ondo mantentzeko, baina ez dago ohiturarik. Lehiatzen duen jendeak badauka ohitura, materiala zaintzen baduzu, hobeto ibiltzen zarelako. Jende normalak ez, gutxieneko azpiegitura behar delako etxean. Eta dendara joanez gero ez da nahikoa, ze han mantendu ez dute egiten, konpondu baizik.

**Sekretu txoren bat eman zenezake?**

Benoa, nik argizaria askotan ematen diet taulei.

**Eta zer galdetzen dute ikastaroetara joaten diren eski zaleek?**

Bere eskia zerk izorratu dezakeen edo ez galdetzen dute. Eskia izorratzea, dena den, ez da erraza. Aukera onena eski zaharrek probatzea dela esaten diet, beldurrak uxatzeko.

**Dozena bat lagun batu zirenen Urnietan, garbi dago jendeak interesa baduela.**

Ikastaroetan geroz eta jende gehiagok parte hartzen du. Lan erraza da eskiak pixka bat zaintzea. Donostian ehundik gora lagun batu izan gara denera, hemen ere bi urtetan ere dozena bat lagun. Taldeak mugatu egin behar dira, 10-12 lagun gehienez, ikastaroa eraginkorra izateko. Ikastarora etortzen den jendeak eskua sartzeko, probatzea gustatzen zait, ikas dezaten, eta talde handiekin hori zaildu egiten da. Hurbiltasuna, zalantzak argitzea aukera izatea funtsezkoa da niretzat.

**"GEROZ ETA JENDE GEHIAGO HURBILTZEN DA. LAN ERRAZA DA ESKIAK PIXKA BAT ZAINTEA"**



Leizaran senior mailako mutilak. LEIZARAN EKK

## Leizarango senior mailako mutilen igoera ospatu zuten

Senior mailako mutilek hurrengo denboraldian lehen mailak jokatzeko txartela lortu zuten igandean

### Erredakzioa ANDOAIN

Ligako azken partidaren Hernani 40-28 mendean hartu zuten. Egundoko denboraldia egin du taldeak, 18 partiduetatik bakarria galdu ostean.

Lezoko Munttarpe taldeak ere bere partidua irabazi zuen, eta ondorioz, Leizaran Ernio Inmobiliariak bigarren amaitu du.

Zaletu ugari hurbildu zen Allurraldera, taldeari animoak emateko eta igoera ospatzeko asmoz. Ikusleek poza ezin ezkutaturik jardun zuten partidu osoan, eta horrenbestez, festa giroa nagusi izan zen harmailetan.

Partida bukatu bezain pronto, Leizaran EKKko zuzendaritza esker oneko agertu zen jokalariekin, denboraldi osoan egin duen lan bikainagatik eta erakutsitako konpromezuagatik, eta horrela, oroigarri gisa, jokalariei, beren izena daramaten kamiseta oparitu zieten.

Zuzendaritzak taldearen gatzetasuna nabarmendu nahi izan du, "oso talde gaztea daukagu. Bestalde, jubentail mailako zenbait jokalariek ere parte hartu dute taldean denboraldian zehar, maila bikaina erakutsiz gainera".




Larunbatean, Arraten. UDALA

## PALA Topaketa irekia emakumeentzat, Arrate pilotalekuan

Martxoaren 8ko egitarauaren baitan, kirol jarduera irekia antolatu dute Andoainen. Eki-mena irekia da, eta palan aritzeko gogoia duen edozeini zabalik dago. Gogoia da larunbata begira jarri duten baldintza bakarra. Eskualdeko ekimena da, beraz, andoaindarra izan ala urnietarra izan, guztiak ongi-torriak izango dira.

### Ordutegia


Arratsaldeko 17:00tan DBHko neskekin abiatuko da jardunaldia. Esan bezala, deialdia irekia da eta edozeinek parte har dezake Arraten deitu duten hitzorduan. Unean bertan agertzearekin nahikoa izango da. 18:00tan hasiko da helduen txanda, 20:00ak arte.



ADARRATRIL

## Lasterketa berria Adarrara

**ATLETISMOA** Zeresan handia ematen ari da Adarratrail delako lasterketan. Maiatzaren 15erako iragarrita dago, eta 21 kilometroko lasterketaz 350 korrikalarik parte hartzeko aukera izango da. Andoingo Goikoplazan hasi eta amaituko da, Onddo eta Adarra mendiak zeharkatuz.



ZUMEATARRA

## Zumeatarra taldeko harrobia

**ATLETISMOA** Aurreko asteburuan Andoingo Zumeatarra kirol elkarteko gaztetxoak Donostiako Belodromoan izan ziren, Errealak antolatutako eskolarteko lehiaketan parte hartzen. Pertiga, hesiak... proba ezberdinetan aritzeko aukera izan zuten Zumeatarra elkarteko gaztetxoek. Horiek osatzen dute harrobia, etorkizuneko korrikalari izango direnak.



GTXF

## Kadete mailakoak nagusi, Beasainen eta Zarautzen

**TXIRRINDULARITZA** Beasainen ospatu zen lehen lasterketan Irati Aranguren izan zengarailea, eta Intza Navarro bigarrena. Bigarrena Zarautzen jokatu zen, eta han Izaro Etxarri gailendu zen. Irati Aranguren bigarren sailkatu zen. Datorren asteburuan Beasainen

Espainiako kopako proba jokatu da, eta bertan Andoingo Txirrindulari Eskolako neska guztiak izango dira: Junior mailako Izaro Zuriarrain eta kadete mailako Izaro Etxarri, Irati Aranguren, Intza Navarro eta Itziar Alkain.



## “Migratzaileak”, Saroben, Aukeran-en eskutik

Mugimendua hizpide ondu du Aukeran Dantza Konpainiak bere azken lana: “Migratzaileak”



Aukerane Victoria Eugenia antzokian estreinatuta du “Migratzaileak” obra. DONOSTITIK

### Erredakzioa URNIETA

“Migratzaileak”. Horrelaxe du izena Aukeran Dantza Konpainiak sortu duen azken lanak: Edu Muruamendiaren gidaritzapean, Oier Guillan idazleak ipini dizkio hitzak egitasmoari, eta Donostiako DFeria arte eszenikoen jaialdian estreinatuta zen, hilaren 12an nahiz 13an. Bada, bi egunetan Victoria Eugenia antzokian emanaldi arrakastatsua plazaratu ostean, Urnietan egingo du konpainiak geldialdia, egoitza artistiko duen gunean, Saroben, aurkezteko; hain justu ere, martxoaren 20an, igandearekin, arratsaldeko 19:00tan.

“Zer da migratzaile izatea ez bada, funtsean, mugitzea: gorputz bat lekuz aldatzeko prest egotea, eta leku berri horretan norbera den gorputza berrituz deskubritzea”. Zer hausnartua utzi nahi du konpainiak ikus-entzuleen

artean, “mugimenduari irekitzeko ariketa bat” proposatzen du. Hala, ahotsaren, dantzaren eta musikaren bitartez, historiari, istorioei begiratu nahi die.

Donostiako antzoki garrantzitsuena zapaldu ostean, eta, Urnietatik igarota, Bilbora egingo du jauzi konpainiak, martxoaren 25ean Arriagako oholtza gainera igotzeko, Loraldia jaialdian.

### Sinopsia

Migrazioa mugimendua da. Mugitzea, funtsean, gorputz bat lekuz aldatzea. Lekuz aldatzean gorputzaren barruko guztia mugitzen da harekin: ametsak, beldurrak, minak eta itxaropenak. Migrazioa mugimendua da. Eta mugimendua arintasuna, mugarik eza. Gorputzak irekitasuna behar du mugitzeko: irekia egon mugimendua abiatzeko, irekia egon mugimendua jasotzeko.



Musikalaren afitxa. MAGALE

## Coco musikala eta txokolatada solidarioa

Bi urteren ostean, “Coco” musikala plazaratuko du Magalek. Ondoren, txokolatada izango da

### Erredakzioa URNIETA

Hitzordu bikoitza antolatu du Magale ikastetxeak hilabete amaierarako. Batetik, Coco musikala estreinatuko du Urnietako Saroben, martxoaren 25ean.

Bi emanaldi egingo dituzte: lehenengoa 17:30ean eta bigarrena 19:00etan. Sarrerak doakoak izango dira eta Magale-Salesiarrak ikastetxeko idazkaritzan eskuratu ahal izango dira edota bertara deituta (943 551 789), martxoaren 17tik 24ra bitartean.

Ekitaldia amaitu ondoren, ikastetxeko Guraso Elkartearen laguntzaz antolatutako txokolatada solidarioa izango da: 1€-ko donazioaren truke, edaria dartzeko tartea edukiko dute herritarrek. Bertan bildutako diru guztia Bartzelonako San Juan de Dios Ospitalean haur minbi-ziaren gainean gauzatzen ari diren ikerketeten finantziatzora bideratuko da.

## Saharako herrialdearen aldeko bertso saioa, hilaren 27an

Sarrerak 6 euroko prezioan salgai daude Delgado, Stop, Ernaitza eta Urrats Andoaingo merkatalguneetan

### Erredakzioa ANDOAIN

Saharako herriaren aldeko tradiziozko saioa martxoaren 27an ospatuko da, Basteroko ekitaldi aretoan, 12:00etatik aurrera. Alaia Martinek, Iker Zubeldiak, Oihana Iguaranek, Aitor Mendiluzek, Maialen Lujanbiok eta Beñat Gaztelumendik osatuko dute saioa, Maddi Etxeberria gai jartzailearen esanetara jarrita.

Ibilbide oparoa egin du jada Hurria Sahara elkarteak Puntuka bertso eskolaren laguntzarekin antolatu ohi duen saioak. Hamaseigarren emanaldia izango da aurtengoa, 2007an ekin eta gero. Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Jokin Sorozabal, Sustrai Colina, Angel Mari Peñagari-kano eta Iker Alustiza igo ziren oholtzara urte hartan. Geroztik, hutsik egin gabe egin da, eta urtez urte, Andoaingo bertso-



Alaia Martin, iazko saioan. AIURRI

zaleen ezinbesteko hitzordu bilakatu ez ezik, euskal bertso-gintzaren panoraman ere aparteko tokia hartzen joan da. Sarrerak 6 euroko prezioan salgai daude Delgado, Stop, Ernaitza eta Urrats Andoaingo merkatalguneetan.



BAKE FALTSUA

## Gaztetxearekin Sakana aldera

Ruben Gelbentzuren elkartsunez, ekitaldia antolatu dute ostiral honetan Arbizon. Andoaingo Gaztetxeak autobusa antolatu du, 17:00etan Makaldegitik aterako dena. Lanbroan eta 97 tabernetan eman daiteke izena. Arbizu vs Andoain pilota partidak, kontzentrazioa eta kontzertua iragarrita daude. Taldeak: Bake faltsua (irudian), Boot boys eta Igitia.



**ENDIKA  
GARCIA  
PEREZ**

Abokatutza orokorrean • Gai penalak • Isunak • Familia • Lan aferak

Zerbitzua euskaraz eta gaztelaniaz ematen dut.

BURUNTZALDEA · DONOSTIALDEA. Deitu konpromezurik gabe.

**616 557 141**



Bete ezazu  
despentsa  
*urte guztirako*



martxoak 10 - 30

Nafar hegoaldeko uzta  
eskutik eskura

# Oinak lurrean



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



[errigora.eus](http://errigora.eus)



## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 17

**ANDOAIN Erakusketa**

"Luminizenteak", Mariezkurrena kazetaria eta Pastor argazkilaria. Emakumeen egoera gordina zapalduko lurraldeetan.  
*Bastero. Apirilak 1 bitarte.*

**ANDOAIN Dokumentala**

"Gure Hots", Leire Zinkunegi eta Arrate Fernandezek eskutik. Irantzu Varelaren, Caroline Philipsen, Josebe Iturriotzen, Nekane Juradoren eta beste askoren ahotsak bildu dituzte.  
*18:30, Bastero.*

## OSTIRALA 18

**URNIETA Parte-hartzea**

2023ko aurrekontuko 150.000 euro zertara bideratu erabakitzeke parte hartze prozesua. Informazio-karpa: *10:00-14:30, Etxeberri plazan. 17:00-20:00, Guria inguruan.*

**ANDOAIN Kontzertua**

Kerobia taldea zuzenean ariko da. Etenaldi luze baten ostean martxan dira berriro. "Hilak" album berriena aurkeztera datoz Andoainera.  
*20:30, Bastero.*

## LARUNBATA 19

**ANDOAIN Jardunaldia**

Beterri-Buruntzako emakumeen II. pala txapelketa. Informazio gehiago 11. orrialdean.  
*17:00-20:00, Arrate.*

**URNIETA Parte-hartzea**

2023ko aurrekontuko 150.000 euro zertara bideratu erabakitzeke parte hartze prozesua. Informazio-karpa: *10:00-14:30, San Juan plaza.*

## IGANDEA 20

**URNIETA Dantza**

"Migratzaileak", Migrazioa mugimendua da. Aukeran dantza konpainiak emanaldi honekin hori bera proposatzen dio publikoari: mugimenduari irekitzeko ariketa bat.  
*19:00, Sarobe.*



Malkogarriryak, zuzenean. BASTERO

**ANDOAIN Malkogarriryak, sagardo botilen artean**

Sagardo festa egingo dute Gaztetxean, musika emanaldia eta guzti. 14:00tan izango da bazkaria. Sagardotegi menua, 20 euroko prezioan. Beganoen kasuan, 12 euro. 18:00tan Malkogarriryak taldeak kontzertua eskainiko du. Tiketak salgai daude Lanbroa eta 97 tabernetan.  
*Martxoak 19, larunbata. 14:00, bazkaria. 18:00, emanaldia. Gaztetxea.*

## OSTEGUNA 24

**ANDOAIN Mahai-ingurua**

"Emakumeen kirolaren ertzak". Nora Mendizabal pilotaria, Nahia Zudaire igerilaria, Larraitz Lukas futbol jokalaria ohia eta Ainara Arratibel kirol kazetaria.  
*19:00, Bastero.*

## OSTIRALA 25

**ANDOAIN Antzerkia**

Chicas y chicos konpainiaren eskutik "El sol de york" antzezlan, gaztelaniaz.  
*20:30, Bastero.*

**URNIETA Musikala**


"Coco" musikala Magaleko DBH2ko ikasleen eskutik. Bi saio izango dira. Sarrerak dagoeneko eskuragarri daude Magale-Salesiar ikastetxeko idazkaritzan. Euro 1eko laguntzaren truke, txokolate solidarioa jasoko dute ikusleek.  
*17:30 / 19:00, Sarobe. Euro 1.*

## IGANDEA 27

**URNIETA Zirkoa**

"Mikra", akrobazien bitartez, generoaren eta identitateari buruzko hausnarketa egingo dute Irati Gonzalezek eta Koldo Arakistainek.  
*17:30, Sarobe.*

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****El triunfo**

Lar., 19. 19:30, 22:00.  
Ig., 20. 19:30.  
Ast., 21. 19:30, 22:00.

**Ainbo**

Lar., 19. 17:00.  
Ig., 20. 17:00.

**Codigo emperador**


Lar., 26. 19:30, 22:00.  
Ig., 27. 19:30.  
Ast., 28. 19:30, 22:00.

**Super... ¿Quién?**

Lar., 26. 17:00.  
Ig., 27. 17:00.

**Turandot, opera**

Apirilak 12. 19:30.



## SINOPSIS

**EL TRIUNFO**

**Zuzendaria:** Emmanuel Courcol. **Aktoreak:** Kad Merad, Marina Hands, Laurent Stocker, Saïd Benchnafa, Lamine Cissokho, Sofian Khammes, Pierre Lottin... **Herialdea:** Frantzia. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 106 minutu. **Urtea:** 2022.

## Preso dagoen aktore-taldea

Etienne maiz langabezian dagoen aktore bat da, zeinak espetxe batean antzerki-tailer bat zuzentzen duen. Preso talde batekin 'Godoten zain' obra ospetsua antzezteko

aukera izango du. Gartzelatik kanpo bira bat egiteko baimena lortzen duenean, aurrera egiteko aukera izango du Etiennek.



andoainDARRA  
euskaraz



Urnieta  
udala



## Sahararen aldeko bertso-saioa

Urteroko hitzordua bihurtu da saharar herriaren aldeko bertso-saioa, Hurria-Sahara elkartearen eskutik

### Erredakzioa URNIETA

Saharako herriaren aldeko tradiziozko saioa martxoaren 27an ospatuko da, Basteroko ekitaldi aretoan, 12:00etatik aurrera.

Alaia Martinek, Iker Zubeldiak, Oihana Iguaranek, Aitor Mendiluzek, Maialen Lujanbiok eta Beñat Gaztelumendik osatuko dute saioa, Maddi Etxeberrria gai jartzailearen esanetara jarrita.

Ibilbide oparoa egin du jada Hurria Sahara elkarteak Puntuka bertso eskolaren laguntza-

rekin antolatu ohi duen saioak. Hamaseigarren emanaldia izango da aurtengoa, 2007an ekin eta gero. Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Jokin Sorozabal, Sustrai Kolina, Angel Mari Peñagarikano eta Iker Alustiza igo ziren oholtzara urte hartan. Geroztik, hutsik egin gabe egin da, eta urtez urte, Andoaingo bertsozaleen ezinbesteko hitzordu bilakatu ez ezik, euskal bertsoingizaren panoraman ere aparteko tokia hartzen joan da.



UDALA

## Gidabaimena, euskaraz

Gida-baimena euskaraz prestatu eta atera dutenen artean zozketa egin eta gero, aurtengo saridunak Aimar Murua eta Arixen Carrero andoaindarrak izan dira. Bakoitzak 400 euro arteko laguntza jasoko du. Aurreko astean jaso zuten saria Andoaingo Udalaren eskutik. Ekimenaren partaide dira ere herriko bi auto-eskolak.



ELKAR+EKIN DANTZAN

## "Elkar+Ekin dantzan", igandean

Komunitatea mugimenduan ipini nahi du "Elkar+Ekin dantzan" proiektuak. Hala, igande honetan, elkartearen lana aitortzeko, 10.000 lagun aterako dira kalera "Martxa baten lehen notak" abestia dantzatzera. Urnietan, Egape Dantza Taldeko kideak izango dira: LH5etik aurrera, zortzi talde izango dira orotara, hots, 80 dantzarik hartuko dute parte, 11:00etan hasita.

## ZORION AGURRAK



ANDOAIN  
**Zorionak Nekane**  
Urte askuan Nekane zure 70. urtebetetzean! Ea behar bezala ospatzen dugun. Besarkada bat, ATERPEKO lagunak.



ANDOAIN  
**Irati Nuñez Larrea**  
Aupa Irati! Igandean, martxoaren 13an 13 urte bete zenituen. Mila muxu etxeko guztien partetik.



ANDOAIN  
**Iker Miguez**  
Martxoaren 26an, 10 urte beteko dituzu! Zorionak txapeldun! Jarraitu zaren bezalakoa izaten! Izugarri Maite zaitugu. Etxekoak.

## ASTE SANTUA

### DEIALDIA

Euskaldunako mendigoizaleen irteera Aste Santurako, apirilaren 14-18rako. Alacanteko Mariola eta Bernako mendilerroetan zeharkaldi bana. Informazio gehiago, 943 592 232 telefonora hots eginda (astearte eta ostegunetan, 19:00-20:30).

## MERKATU TXIKIA

### MINTZALAGUNA

Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza edo mintzalguna bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez / danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: [reflexologist45@yahoo.co.uk](mailto:reflexologist45@yahoo.co.uk)

### SALGAI

Etxeko arraultzen salmenta: 3 eurotan dozena. **665 719 827**

**Josteko makina, semi-industrial**a salgai, egoera eta prezio onean. Mari Karmen: **688 802 880**

## Ukrainarekin elkartasuna

Makina bat ekimen ipini dira martxan azken asteotan Ukrainari elkartasuna adieratzeko, baita Urnietan ere. Hala, borondatezko material-bilketa antolatu zen, eta, jada bidean da Ukrainarentzat bildutako guztia (arropa, mantak etabar). Biziki pozik agertu dira ekimeneko antolatzaileak, "erantzun izugarri ona" jaso baitu proposamenak.



ROSA ELOSEGI

# Munduko txapelketarako txartela eskuratu nahi du

**GARIKOITZ MUJIKA** LA SALLE IKASTETXEKO IKASLEA

Hernaniarra umetatik izan da mekanikaren zale, eta diseinuan duela gutxi murgildu den arren, maila ona eta trebezia erakutsi du EuskoSkills txapelketan

**Mikel Arberas** ANDOAIN  
**Zer da CAD 3D diseinua?**

CAD 3D ingeniariak, produktuen garatzaileak eta diseinatzaileak hiru dimentsioko objektuen prototipo birtualak eta funtzionalak sortzeko erabiltzen duten teknologia da. Horri esker, diseinatzaileak produktu, pieza edo muntai baten xehetasun bakoitza dinamikoki sortu eta

alda dezakete. Oso erabilgarria da, eta aukera asko ematen ditu. **Umetatik erakutsi duzu interesa.** Mekanika betidanik gustuko izan dut, baina diseinuan ikasketak osatzeko sartu nintzen; izan ere, mekanika eta diseinua eskutik helduta doazen bi gradu dira.

**Nolatan erabaki zenuen horrelako lehiaketa batean parte hartzea?**

Diseinuko ikasketetako lehen urtean oinarri ona eskuratu nuen. Irakasleak gomendatuta hiru ikaslek hartu genuen parte.

**Horren urrun iristea espero al zenuen?**

Hasiera batean ez. EuskoSkills lehiaketan esperientzia polita bizitzea zen helburua, baina Espainiakora jauzi egitea lortu

nuen. Ea, oraingoan, zer nolako maila ematen dudan, ez da baxterre erraza izango.

**Lehiaketan mailarik onena emateko entrenamendu asko egiten ari al zara?**

Aurreko urteetako ariketak egiten aritzen gara, ia egunero. 2005 urtetik aurrerako froga guztiak jaitsi ditugu, Espainiakoak, Europakoak eta mundukoak, publikoak baitira. Gutxi-naka froga guztiak egiten nabil, eta kasualitatez Espainiako txapelketa irabaziko banu, mundu mailara egingo nuke jauzi, Shangaira.

**Lan munduan atea irekitzeko baliagarria den lehiaketa al da?**

Horrelako txapelketak zure potentziala erakusteko eta ezagutarazteko oso onak direla iruditzen zait. Izan ere, Euskadiko txapelketa irabazita, oso ona zarela erakusten ari zara eta



Garikoitz Mujika, La Salleko ikaslea. AIURRI

enpresei horrelako langileak edukitzea komeni zaie. Hortaz, bai, atea irekitzeko tresna dela esango genuke.

## SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA


Andoaingo  
Bastero Kulturgunean  
Martxoaren 27an  
12:00etan

**Alaia Martin**  
**Iker Zubeldia**  
**Oihana Iguaran**  
**Aitor Mendiluze**  
**Maialen Lujanbio**  
**Beñat Gaztelumendi**

Gai jartzailea: Maddi Etxeberria

Sarrerak salgai:  
Delgado, Ernaitza,  
Stop eta Urrats  
**6.00€**

Antolatzaileak



Loguntzaileak

